

**2010EKO ABENDUAREN 21EAN GOBERNU BATZARRAK**  
**EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hogeita bata.

**HILABETEA:** Abendua.

**URTEA:** Bi mila eta hamar.

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko hamarrak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Sei (6)

**MAHAIBURUA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Aitor Aldasoro Iturbe

Begoña Lasa Royuela

Julio Herreros Serna

**EZ DIRA ETORRI:** Fernando Boada González

Josi Insausti Mujika

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2010eko azaroaren 12ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute aktarekiko zeresanik ez dagoelako.

**2.- KONTRATUAK HANDITZEA:**

- Irakaskuntza guneak egokitzea: udal Euskaltegia eta HHIrako gelak (helduen hezkuntza iraunkorra) (E PLANA).
- Udal jabetzakoak diren lokalen hobekuntza: ludoteka, udaltzaingoa eta udaletxearen beheko oina. (E PLANA).

Gai honi buruz, ezagutzera eman da, hirigintza batzordearen proposamena, hau da:

**“IRAKASKUNTZA GUNEAK EGOKITZEA: UDAL EUSKALTEGIA ETA HHIRAKO GELAK (HELDUEN HEZKUNTZA IRAUNKORRA) (E PLANA).**

*Aipatutako obrak exekutatzeko eskatu eta lortu zen finantziazioa 516.288,17 €koa. Horietatik, 71.212,16 €, BEZri dagokion %16a da. Obrak, 382.699,23 €tan esleitu ziren (BEZik gabe).*

Proiektua egin zuten arkitektoek, 2010eko abenduaren 14ko datarekin toxstena eman dute eta adierazi dute obra, 475.315,59 €tan likidatu dela (BEZik gabe), hau da, esleitutakoa baino 92.616,36 €.

Gehikuntza hori, arrazoi hauengatik da:

- 1.- Neurketa-akatsak: 64.831,45 (%16,94 esleitutakoarekiko).
- 2.- Obra-unitate gehiago egitea: 27.784,91 € (%7,26 esleitutakoarekiko).

**UDAL JABETZAKOAK DIREN LOKALEN HOBEKUNTZA: LUDOTEKA, UDALTZAINGOA ETA UDALETXEAREN BEHEKO OINA. (E PLANA).**

Aipatutako obrak exekutatzeko eskatu eta lortu zen finantziazioa 944.241,83 €koa. Horietatik, 130.240,25 €, BEZri dagokion %16a da. Obrak, 688.344,88 €tan esleitu ziren (BEZik gabe).

Proiektua egin zuten arkitektoek, 2010eko abenduaren 14ko datarekin txostena eman dute eta adierazi dute obra, 874.198,00 €tan likidatu dela (BEZik gabe), hau da, esleitutakoa baino 185.853,12 €.

Gehikuntza hori, arrazoi hauengatik da:

- 1.- Neurketa-akatsak: 123.902,08 € (esleitutakoarekiko %18a).
- 2.- Obra-unitate gehiago egitea: 61.951,04 € (esleitutakoarekiko %9).

Idazkariak adierazi du, kontratua aldatu beharrik gabe, legeak beste bide batzuk markatzen dituela sor daitezken akatsak konpontzeko, atzerapen edota enbarazurik sortu gabe, hau da:

1.- Alde batetik, proiektuaren akatsak zuzenean konpondu daitezke, aurrekontuaren %20a lortzen ez bada. Akatsak %20a gainditzen badute, kontratua bertan behera uztea suposatuko luke.

2.- Urriaren 12ko 1098/2001, Erret Dekretuak onartzen duen Administrazio Publikoetako Kontratu-Legearen Araudiaren 160.1 artikulua, %10erainoko unitate gehikuntza onartzen du.

*Edozein proiektuak izan ditzake akatsak eta kasu hauek hori aurreikusten dute.*

*Horren ondorioz, Gobernu Batzordeak ondorengo erabaki proposamena egiten du:*

*Proiektuaren neurketa-akatsetatik eta obra-unitate berriak egitetik ondorioztatutako obrak exekutatzea eta horrek daraman Udalak ordaindu beharreko kopuruaren gehikuntza onartzea.”*

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

### **3.- ESKAERA ETA GALDERAK.**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bileran hamarrak eta hogeietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.